



MENPEKOTASUN-LAGUNTZA NAFARROAN

IRUÑEA, 2010eko urtarrilak 19

1. NAFARROAKO GIZARTE ZERBITZUAK. BEHARRAK ETA ESTALDURA ERREALA 2008an

“2008ko Txostena. Pertsona nagusiak Espainian” txosteneko datu ofizialen arabera, Nafarroan 65 urtetik gorako 44.300 pertsona daude eguneroko ekintzak egiteko nolabaiteko ezintasuna dutenak, hauek dira gizarte zerbitzuen beharra duten erreferentziazko biztanleak gure ustez.

Hau horrela bada ere, 6.660 pertsonak besterik ez dute zerbitzuren bat jasotzen, hau da, gizarte zerbitzuen benetako estaldura nolabaiteko laguntzaren bat behar dutenen %15ari baino ez zaio heltzen.

Jasotako laguntza zehazten badugu, ondorengo ikus dezakegu:

- **Etxez-etxeko laguntza zerbitzua** 3.660 pertsonak jasotzen dute, eguneroko oinarrizko gauzak egiteko nolabaiteko ezintasuna dutenen %8,2ak.

Nahiz eta gehien eskaintzen den gizarte zerbitzua izan, beronen erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren %50 ordaintzen dute.

Gainera, eta estaldura mailaren adierazgarri dena, hilabetean onuradun bakoitzak jasotzen duen orduen batz bestekoa 10,5ekoa da (garraioa, prestakuntza eta koordinazioa barne, honek, zerbitzu orduen %23,3 suposatzen duelarik).

- 2.566 pertsonak dute plaza **erresidentzietan**, arreta behar dutenen %5,8ak.

Zerbitzu hau ordaintzeko garaian, partaidetza publikoa oso txikia da, erresidentziaren kostuaren %73 erabiltzaileak ordaintzen baitu.

Erresidentzietako plazen %24,5 publikoak dira, %15,9 itunpekoak eta %59,6 pribatuak.

- **Eguneko zentroek** 257 erabiltzaile dituzte, erreferentziazko biztanleriaren %0,6 alegia.

Erabiltzaileek, prezioaren %43a ordaintzen dute eguneko zentroetan.

Eguneko zentro hauei dagokionean ere, sektore pribatuak duen zamaz ohartarazten gaituzten datuak ere baditugu. Leku guztien %10,3 besterik ez dira publikoak, %14,8 itundutakoak eta %74,9 pribatuak dira.

- 177 pertsonak jasotzen dute **janari eta arropa garbiketa zerbitzua etxean**, arreta behar duen biztanleriaren %0,4ak, hain zuzen ere.

Ondorioak

Gizarte zerbitzuen estaldura oso txikia da Nafarroan, menpekotasun arazoak dituzten pertsonen %85ak ez baitu inolako zerbitzu publikorik jasotzen.

Eskaintzen diren zerbitzuek gabezia handiak dituzte sarritan, eskaintzen den zerbitzu maila oso eskasa delako, eta erabiltzaileak beronen kostuaren zati handi bat ordaindu behar izaten duelako.

GIZARTE ZERBITZUEN TAULA. NAFARROA, 2008

	ETXEZ- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA	JANARIA ETA ARROPA HELBIDERATUA	EGUNEKO ZENTROAK	ERRESIDENTZIA ZENTROAK	GUZTIRA
ERABILTZAILEAK	3.660	177	257	2.566	6.660
65 URTE > PERTSONAK EGUNEROKO OINARRIZKO GAUZETARAKO NOLABAITEKO EZINTASUNAREKIN					44.300
ESTALDURA TASA	8,3%	0,4%	0,6%	5,8%	15,0%
ERABILTZAILEAK ORDAINDU BEHARREKOA	50%		43%	73%	
% Plaza publikoak			10,3%	24,5%	
% Taxututako plazak			14,8%	15,9%	
% Plaza pribatuak			74,9%	59,6%	
ORDUAK/ HILEKO/ ERABILTZAILEKO	10,5				

Iturria: 2008ko Txostena. Pertsona Nagusiak Espainian

2. MENPEKOTASUN-LAGUNTZA EREDUAREN INGURUAN NAFARROAKO GOBERNUAK, CEN-ek, UGT-ek ETA CCOO-ek SINATURIKO AKORDIOAREN GAINEKO BALORAZIOA

Nafarroako Gobernuak, CEN-ek, UGT-ek eta CCOO-ek sinaturiko *“Nafarroako menpekotasun-laguntza ereduaren gaineko kohesio sozialeko Mahaiko akordioak”*, baliokotzat jotzen ditu egungo gizarte zerbitzuen ereduak eskaintzen duen estalpen maila, Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen duen marko legala, eta beronen arauketa .

Datuek menpekotasuna pairatzen duen jendearen %85ak inolako laguntzarik jasotzen ez duela erakusten dutenean, ELAk, errealitatearen ikuskera adeitsu hau gaitzesten du. ELAk, Nafarroako Parlamentuak onartutako Gizarte Zerbitzuen Legeak eskubideen onarpenean ez zuela inolako aurrerapenik suposatzen salatu zuen bere garaian. Eta ondoren gertaturikoek arrazoi genuela erakutsi dute.

Gai honen inguruan, kohesio sozialerako Mahaiaren akordioak erreferentzia onartezinak dakartza, adibidez *“ Nafarroako menpekotasun-laguntzaren eredua sobera hornituta dago erresidentzia arretari dagokionean ”*. Izan ere, gabezia handia dago gai honetan, etxez-etxe laguntzan edota beste zerbitzu batzuetan gertatzen den bezala.

ELAk menpekotasun-laguntza sistema publiko, unibertsal eta doakoa eskatzen du. Eta akordio hau guztiz aurkako norabidean doa.

Lehenik eta behin, Mahaiaren akordioak, menpekotasun gaiei dagokienean, ez dio inongo aipamenik egiten zerbitzu publikoak handitzeko beharrari. Alderantziz, sektore pribatuaren aldeko apustu garbia egiten dute sinatzaileek. Honela, akordioaren arabera gestio sistema *“Nafarroako administrazio publikoaren eta entitate pribatuen arteko elkarlanean oinarritu behar da. Zentzu honetan, sinatzaileek argi eta garbi agertzen dute modu egokian eraturiko enpresal sektore baten aldeko konpromisoa ...”*. Gainera, etxez-etxe laguntza zerbitzuaren eta eguneko zentroen kasuan, argiro azaltzen da *“iniziatiba sozialeko enpresa eta/edo entitate eraketaren alde”* egiteko beharra, enpresa edo entitate publikoen inongo aipamenik egin gabe.

Publikoaz espero den bakarra, enpresa pribatuak finantzatzea da. ELAk behar sozialekin jolas egitea salatzen du, eskubide hauek bermatu beharrean, negozioa egiteko. Gainera, sektore pribatuaren aldeko apustua bertako langileen lan-baldintzen kaltetan egiten da, prekarietateagatik batik bat (soldatetan eta bestelako baldintzetan).

Bigarrenik, Gizarte Zerbitzuen Legeak kopagoa aukeratu zuen zerbitzuak eskuratzeko era bezala. Mahaiaren akordioak *“kopagoan oinarritutako menpekotasun-laguntza ereduarekin”* konpromisoa berresten du. Honekin jende asko gizarte-zerbitzuak eskuratzetik baztertzen da. ELAk, berriro ere, kopagoa menpekotasunarekin negozioa egiteko tresna dela salatzen du. Neurri bidegabea da, Nafarroako Gobernuak errenta altuenei eta kapitalaren errentei zergak urtero jaitsi, eta iruzur fiskalaren aurka ezer egiten ez duen bitartean. Fiskaltasuna aldatzeak suposatuko lukeen diru bilketa handiagoak, ELAk eskatzen duen sistema publiko, unibertsal eta doakoa ezartzea baliatuko zuen.

ELArentzat, okhesio sozialerako Mahaian sinaturiko akordio hau, Nafarroan ematen den konzertazio sozialaren estrategiaren barruan kokatzen da. Erakunde sinatzaileek Gizarte Zerbitzuen Legea babestu zuten bere momentuan, nahiz eta inolako aurrerapausorik ez suposatu eta jende kolektibo ugari zerbitzuak jasotzeko aukerarik gabe utzi, etorkinen kolektiboa kasu.

Begi bistakoa da Legeari emandako babesak eta Mahaian sinatutako akordioak, Nafarroako Gobernuak 2010erako aurrekontuetan UGTekin eta CCOOekin Hitzarmenerako aurreikusitako 200.000 euroko Gizarte Zerbitzuen Legearen garapenerako partidarekin zerikusia duela. Hau da elkarrizketa sozialaren errealitatea: inongo aurrerapausorik suposatzen ez duten erduei estaldura eman, enpresa pribatuen mesedetan, finantziazio publikoaren truk.